

“ Duela pare bat urte nire lagun batek frantsesean laguntzeko eskatu zidan gutxiegi atera zuelako. Frantsesa ondo dakidanez, lagundu egin nion. Premia zuenean deitzen zidan eta elkarrekin estudiatzen genuen edo ariketa batzuk egiten laguntzen nion.



**Hurrengo urtean berriro laguntzeko eskatu zidan, baina gauzak hobetu ez zirenez, maizago elkartu behar izan genuen: astean behin.**

Pare bat “klase” eman ondoren, bere kiden ama batzuk bere semeei ere frantseseko klaseak emateko eskatzen hasi zitzaizkidan, baina ez dohainik lehen bezala ez, zerbait ordaindu nahi zidaten. Eta hala egin genuen.



**Kurtso bukaeran mutil guziek azterketa gainditu zuten eta nik irabazitako dirua jarri nuen motozikleta erosteko .**

Lorentzo - Italia

«EMAN ETA EMANGO ZAIZUE»



Edonoiz gertatu al zaizu **lagun baten oparia jasotzea** eta gero zuk zerbaitekin **itzuli beharra sentitzea?**

**A**

**Bai! Esker oneko maitasunez egiten dut.**

**Bai! Zorrik ez izateko egiten dut.**

**B**

**A**

**A aukeratu duzu:** Horrela gertatzen bazaizu, pentsa ezazu zer gertatuko zaion Maitasuna den Jainkoari. Berak beti erantzuten digu guk senideei egindako dohainengatik eta aldi bakoitzean ustekabea da.

**B**

**B aukeratu duzu:** Jakin ezazu eskatzen digun edonori egindako dohaina eskuzabala izan behar duela, bihurtzeko itxaropenik gabe. Probatu. Baina egin ezazu ez emaitza ikusteagatik, Jainkoa maite duzulako baizik.

**Baina nik ez dut ezer...**



Ziur zaude? Nahi izanez gero, altxor agortezinak dauzkagu: gure astialdia, gure bihotza, irribarrea, kontseilua, gure kultura, gure bakea, beharrea dagoenari lagun diezaiokeenari konbentzitzeko daukagun gaitasuna...

**Baina ez dakit nori eman...**



**Begiratu zure inguruan:** gogoratu ospitalean dagoen gaixo hura, bakarrik dagoen andre hura, suspenditu duelako lur jota dagoen kide hura, zure lagun betilun hura, laguntza behar duen anai-arreba txikia ...



**Gure eskuzabaltasunak Jainkoaren eskuak irekiko ditu** eta leporaino emango digu guk ematen eta ematen jarraitzeko pertsona askoren beharrei aurre egin izateko.

MemoryCard

**AURREZTU GABE EMAN DEZAGUN, ULERTU, ENTZUN. EMAN DEZAGUN GURE DENBORA, GURE IDEIAK. EMAN DITZAGUN GURE ESPERIENTZIAK, GURE GAITASUNAK, GURE ONDASUNAK BESTEEI BANATZEKO, EZER PILA EZ DEDIN ETA DENA ZIRKULA DEDIN.**



In Action...



MARKATU ENTZUTEKO, ULERTZEKO ... GAI IZAN NAIZEN BAKOITZEAN

MOZTU ZATI HAU . TOLESTUZ TXARTEL BALIAGARRI BAT BIURTUKO ZAIZU

MOZTU ZATI HAU, TOLESTUZ TXARTEL BALIAGARRI BAT BIURTUKO ZAIZU